

Donostian, Ekauta jauregian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Epaillaren ogetabostean batzen dira Etxaide, Irigarai Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak, gaurko deitutako Euskaltzaindiaren batzarra egiteko. Maipuru Etxaide jauna.

Araudizko otoitzaren ondoren lenaurreko batzar agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

A. Villasante jaunak ezin etorria iragarri dau. Dassance jaunaren idazki bat irakurri da. Bera ta Prantzi aldeko bere euskaltzain lagunak emengo batzarretara etorteko daukezan eragozpenak azaltzen dauz, eta ganera, andiko aldean bere batzarren bat edo beste egitea egoki izango litekela dino. Aintzakotzat artzen dira Dassance jaunaren asmoak eta eurozaz zerbait erabakitekotan itzi da arazoa.

Bizkaiko Jakintza bazkunak, Gorostiaga jauna atzerrira joan dala ta beregan egon dan gutunzaintzea geldi dagoalako, Euskaltzaindiari eskeñitako urte saria lenagoko bost milla laurlekora eratsi dau. Gorostiagaren ardura ori beinbeineko Irigoyenen ardurapean jarri dan ezkerero, eskatu bekio Jakintza bazkunari aitaturiko sari ori geiagotu dagiala. Oleaga jaunak egin bedi eskari ori.

Gipuzkoako Ekautari ta Gipuzkoako ta Donostiako Aurrezki-kutxai bere, eskatu bekioe bakoitzaren diru-laguntzea geiagotu dagiela. Etxaide jaunak artu begi orren ardurea.

Euskal idazle ospetsua izandako Kirikiño jaunak beinola argitaratu ebazan *Abarrak* edo Ipuin sorta politikak, barriro argitaratu bear litekez, al dala berak erabili-riko izpiakera zerbait aldatuz. Oleaga euskaltzainak, Irigoyenen laguntzaz, gertu bedi asmo au aurrera eroateko bear dana.

Oraintsu izandako sari batzaldian sarituriko ipuin sortak, argitaratu bediz, osoan eta batera ezin bada, taldeka.

Euskaltzaindi onen **Euskera** aldirokoaren ijeki batzuk bidaldu bediz Salamanka ta Bordeleko Irakastegitara, Berlingo gutuntegira ta beste onako jakintza lekutara. Eta baita, alkar-truke edo ordainez beste izkuntza gutun argitaratzaillari bere.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.